

EUSKARAREN INGURUKO IKERKETA SAKANAKO HAUR  
KIROLEAN (11-14 URTEKOAK)

2006KO MAIATZA – IRAILA

ANA BALDA SANJUÁN  
PATXI FLORES LAZKOZ

# **AURKIBIDEA**

- SARRERA
- DATU OROKORRAK
  - Partaideak
  - Entrenatzaileak
  - Euskararen erabilera entrenamendu edota saioetan
  - Euskararen erabilera barne harremanetan
    - Ahozko harremanak
    - Idatzizko harremanak
  - Euskararen erabilera kanpo harremanetan
    - Ahozko harremanak
    - Idatzizko harremanak
- HERRIZ HERRIKO DATUAK
- KIROLEZ KIROLEKO DATUAK
- ONDORIOAK
- AURRERA BEGIRA
- GEHIGARRIA

## SARRERA

Euskararen erabileraren inguruko ikerketa hau Sakana osoko haur kirol taldeetan 2006ko maiatzean eta ekainean egindako inkesta erdi irekien bidez egin da.

Ikerketan sartu diren haurrak 11 eta 14 urte bitartekoak dira.

Inkestak (ikusitako ereduak I. gehigarrian) 33 izan dira eta

Mankomunitateko Kirol zerbitzuak emandako kontaktu zerrendari jarraituz egin izan dira, aurrez aurre arduradunekin, telefonoz edota Altsasuko kirol zerbitzuaren bitartez.

Olazti, Altsasu, Urdiain, Etxarri Aranatz, Arbizu, Lakuntza, Uharte Arakil eta Iruztungo haur kirol taldeak edo eskolak izan dira aztergai, eta horietaz gain, Sakana osoko partaideak dauzkan bi talde: Itxesia Igeriketa Eskola eta Sakanako Aizkora Eskola.

Esan beharra dago kirol batzuetan 11-14 urte bitarteko haurrek ez dutela taldea sortzen, bai kirolak berak ez duelako eskatzen bai gutxi daudelako eta beste adineko kirolariekin nahastu behar direlako

**Haurren** hizkuntza gaitasuna jakiteko Hezkuntza Ereduak hartu dira hizpide, hau da, D edo A ereduak dauden matrikulatuta. Datu gehienak arazorik gabe hartu ahal izan dira baina zailtasunak izan ditugu zenbait kasutan monitore batzuek ez baitakite haurrak euskaldunak edo erdaldunak diren, D edo A ereduak matrikulatuta dauden, eta ez dute jakiterik izan.

**Entrenatzaile** hitza erabili dugu monitore, entrenatzaile edota begiraleak izendatzeko, hau da, taldeetan zuzenean aritzen diren arduradunak izendatzeko.

Entrenatzaileen hizkuntza gaitasunari dagokionez elkarrizketatuak dioena izan da hizpidea, monitoreak euskalduna, erdalduna, edo ia euskalduna den jakiteko.

Euskalduna izatea horrela definitu dugu: euskaraz ongi hitz egin eta idazteko gai dena;erdalduna: euskaraz ez dakiena; eta ia euskalduna: euskara ulertzeko gai izan arren euskaraz ongi hitz egiteko zailtasunak dituena.


**Euskararen erabilera** neurtzeko elkarrizketatuak dioena erabili dugu ez baita tokian tokiko neurketarik egin.

## DATU OROKORRAK

### Partaideak

Sakana osoan 718 haurren datuak bildu ditugu. Hauetatik 585 euskaldun eta 78 erdaldun daude, hau da, kirola egiten 11-14 urte bitarteko haurren % 81 euskalduna da,


55 haurren datuei buruz ez dugu informazioa eskuratzerik izan.



### Entrenatzaileak

Sakana osoan haur kirolean aritzen diren **80 entrenatzaile** daude. Hauetatik **49 euskaldunak** (%61), **23 erdaldunak** (%29) eta **8 ia euskaldunak** (%10) dira.

Taldeen % **52tan ez da euskara eskatzen** entrenatzailea izan ahal izateko, % **37tan derrigorrezkoa da euskara jakitea** eta % **11tan** entrenatzaile **euskalduna izatea hobesten** da baina ez da derrigorrezko baldintza.




### **Euskararen erabilera entrenamendu edo saioetan**


Atal honetan entrenamendu edo saioetan erabiltzen den hizkuntza hartu dugu kontuan. Alde batetik entrenatzaileak hurrekin erabiltzen duena, hau da, entrenamenduak zein hizkuntzatan egiten diren eta beste alde batetik hurrek beraien artean erabiltzen dutena.

Entrenamenduen %**33 erdara** hutsean egiten dira eta %**18tan erdara da gehien** erabiltzen den hizkuntza; %**43 euskaraz** izaten dira eta %**6tan euskara erdara baino gehiago** erabiltzen da.

Hau da, Sakanako entrenamenduen % 52tan hizkuntza erdara da eta euskara % 48an.



Entrenamendu edo saioetan, haurren artean, % **27tan euskara hutsa** erabiltzen da eta % **12tan euskara erdara baino gehiago** erabiltzen da. Bestaldetik entrenamenduen % **18** erdara hutsean egiten dira eta % **43tan erdara** da saioetan **gehien** erabiltzen den hizkuntza.




### **Euskararen erabilera barne harremanetan**

#### Ahozko harremanak

Atal honetan taldeko barneko harremanak (entrenamenduez gain) izan dira aztergai eta horretarako **Zuzendaritza bilerak** eta **partaideekin egiten diren bilerak** ikertu dira. 5 taldetan ez da horrelakorik egiten baina egiten diren kasuetan % **57 erdara hutsean** egiten da eta %**7tan erdara euskara**

**baino gehiago** erabiltzen da. Bestaldetik **euskara hutsean** ahozko barne harremaneko **%25a** egiten da eta **% 11tan euskara erdara baino gehiago** erabiltzen da.




#### Idatzizko harremanak

Idatzizko harremanen adierazle batzuk hartu dira euskararen erabilera neurtzeko.


#### *Taldearen izena*

Taldeak izena daukanean (28 kasutan) **%57tan euskaraz** egoten da, **%32tan elebidunean** eta **%11tan erdaraz**.




*Oharrak eta kartelak*

Taldearen funtzionamendurako egiten diren kartelak eta talderako bidaltzen diren oharrak izan dira aztergai atal honetan. **27 taldetan idazten dira** eta kasu horien **%59 elebidunak** izaten dira (16 talde), **%30 euskaraz** idazten dira (8 talde), **% 4tan** (talde bat) **euskara erdara baino gehiago** erabiltzen da idazteko eta azkenik kasuen **%7tan** (2 talde) **erdara** da erabiltzen dena.




### *Bazkide txartela*

14 kasutan ez dago bazkide txartelik. Gainerakoetan, batzuetan bazkide txartela eta federazioko txartela bera izaten da. Txartelen **%42a erdaraz** dago, **%26a euskaraz** eta **%32a** elebidunean.




### *Estatutuak*

Estatutuak 23 taldetan dauzkate. Horietatik % **56 erdaraz** idatzita daude, % **22 euskaraz** eta beste % **22 elebidunean**.




### *Bilera aktak*

Bilera aktak ez dira idazten talde guztietan baina idazten direnen artean (23 talde) % **40 elebidunean** idatzita daude, % **30 erdaraz** eta beste % **30 euskaraz**.



## Gai zerrendak

Bilerak egiten dituzten taldeek gai zerrenden **%35a elebidunean** idazten dituzte. Beste **%35 erdaraz** dago eta **% 30 euskaraz** idazten da.




## Euskararen erabilera kanpo harremanetan

Aurreko atalean ikertu dugu euskararen erabilera taldeen barneko harremanetan eta atal honetan neurtuko dugu erabilera taldetik kanpo izaten diren harremanetan (jendaurreko aurkezpenetan, Federazioarekin, Sakanako Kirol zerbitzuarekin ,eta publizitatea eta kalean edo prentsan jartzen diren oharretan.

### Ahozko harremanak


#### *Jendaurreko aurkezpenak*

Txapelketak egiten diren uneetan mikrofonotik edota megafoniatik zein da erabiltzen den hizkuntza izan da atal honetako gaia. Taldeen **%63k elebidunean** egiten ditu aurkezpen publikoak; **%22k euskara hutsean**; **%11k erdaraz** egiten ditu eta **% 4tan erdara euskara baino gehiago** erabiltzen da.




## *Kirol Federazioekin harremanak*

8 talde ez daude Federaturik. Federaturik daudenen artean taldeen **%80k erdara** dauka komunikatzeko hizkuntza eta **% 20k euskara**. Euskaraz hitz egitea ahalbidetzen duten Federazioak hauek dira: Mendia, Belate pilota federazioa eta Herri kirolak.



#### *Sakanako Kirol Zerbitzuarekin harremanak*


Talde batek izan ezik, gainerako guztiek harremana daukate Mankomunitateko Kirol zerbitzuarekin. **% 53k euskara** erabiltzen du, **% 25ek erdara hutsa** eta **% 22k erdara euskara baino gehiago**.




#### Idatzizko harremanak

Atal honetan gurasoei bidaltzen zaizkien oharrak edo eskutitzak eta kanporako publizitatea izan da aztergai. 4 taldetan ez da horrelakorik

egiten. Gainerakoetan % **73tan** kartelak eta gutunak **elebidunean** egiten dira, % **24tan euskara hutsean** eta % **3tan erdaraz**.




## HERRIZ HERRIKO DATUAK



Olaztin 11-14 urteko haurrak 3 motatako kirolean aritzen dira: pilota, futbola eta irristaketa. Pilota eta irristaketan adin guztietako haurrak batera aritzen dira. 11-14 urteko 43 partaide daude osotara. % **77 euskalduna** da eta % **23 erdalduna**.


3 entrenatzaile daude: 1 euskalduna, 1 erdalduna eta 1 ia euskalduna.



Altsasun futboleant, pilotan, taekwondon, txirridularitzan, saski baloian, tenisean, gimnasia erritmikoan, multikirolean, eta atletismoan biltzen dira ikerketa honetako aztergai diren haurrak. Osotara **354 partaide** dira. **%76 euskalduna** da, **%9 erdalduna** eta **% 15en daturik ezin** izan dugu jaso.

Zenbait taldetan entrenatzaileak ez du jakiterik izan haurrak euskaldunak edo erdaldunak diren (D edo A ereduan dauden). Kasu horietan entrenatzailea erdalduna zen.


**Entrenatzaileak 31 dira** osotara: **14 euskaldun**, **11 erdaldun** eta **6 ia euskaldun**. Hau da **%45 euskalduna** da



Urdiainen 11-14 urte bitarteko **16 partaide** daude. Egiten dituzten kirolak irristaketa eta pilota dira. **% 100 euskalduna da**.

Bi monitore daude, **1 euskalduna** da eta **beste 1 ia euskalduna**.

### Etxarri Aranatz




Etxarri Aranatz 11-14 urteko **127 partaide** dira. Txirrindularitzan, futbolean, borroka arteetan, palan, mendian eta herri kirolean aritzen dira.

Hizkuntza gaitasunen arabera horrela daude banatuta: Gehiengo handia, % **98 euskalduna** da eta % **2 erdalduna**, hau da, bi partaide erdaldun daude, gainerakoak euskaldunak dira.

**15 entrenatzaile** daude eta horietatik **1 erdalduna** da eta gainerako **14ak euskaldunak**.


### Arbizu



Arbizun pilota eta areto futbolean biltzen dira kirola egiten duten **11-14 urte bitarteko haurrak**. Osotara **56 dira** eta % **100 euskalduna** da.


**6 entrenatzaile** daude eta 6ak **euskaldunak** dira, hau da, %**100**.

### Lakuntza



Lakuntzan **7 haur** biltzen dira Areto futbolean aritzeko. **Denak** euskaldunak dira **Entrenatzaileak 2** dira eta biak **erdaldunak** dira.


### Uharte Arakil



Uharte Arakilen 11-14 urte bitarteko **6 haur** dira kirolean aritzen direnak, pilotan. **Denak euskaldunak** dira.

**3 entrenatzaile** daude eta 3rak **erdaldunak** dira.


### Irurtzun



Irurtzunen 11-14 urte bitarteko 83 haur biltzen dira zenbait kiroletan aritzeko: areto futbola, multikirola, karatea, eta pilota. Hauetatik % **60 euskalduna** da eta % **40 erdalduna**.

**Entrenatzaileak 15** dira, **8 euskaldun** eta **7 erdaldun**

### Igeriketa-Aizkora



Igeriketan eta Aizkora Eskolan bailara osoko haurrak biltzen dira. Osotara 11-14 urte bitarteko **21 haur** daude eta denak euskaldunak dira.

**3 entrenatzaile** daude. **2 euskaldunak** dira eta **1 ia euskalduna**.

## KIROLEZ KIROLEKO DATUAK



Euskararen erabilpena neurtzeko hiru kirol adierazgarri hartu izan dira: futbola (areto futbola eta "futbol 7" barne), irristaketa eta pilota, hemen biltzen baita haur kopururik handiena.

### Futbola, Areto futbola eta futbol 7

Kirol honetan 153 haur aritzen dira eta hizkuntza ereduen arabera **partaideen %86 D ereduan** dago eta **%14 A ereduan**.



**Entrenatzaileei** dagokienez **% 55 euskalduna** da, **% 40 erdalduna** eta **% 5 ia euskalduna**.

Entrenamenduen **%43 euskaraz** izaten dira eta **% 57 erdara hutsean** edo **batez ere erdaraz** egiten dira.



## Irristaketa

Irristaketa bi talde daude eta 71 haur biltzen dira. Haurren **%93 euskalduna** da. Entrenatzaile bakarra dago eta ia euskalduna da. Entrenamenduak **batez ere erdaraz** izaten dira.





## PILOTA

Pilotan **121 haur** aritzen dira eta haurren **% 89 D ereduan** daude eta **%11 A ereduan**.

**18 entrenatzaile** daude osotara eta horietatik **%56 euskalduna** da. **% 44**, berriz, **erdaldunak**.

**Entrenamenduen % 75etan** euskara da erabiltzen den hizkuntza eta **erdara % 25etan**.





## ONDORIOAK

- Sakanako haur kirolean aritzen diren 11-14 urteko haurren % 81 euskalduna da.
  - Entrenatzaileen % 61 euskalduna da eta % 10 euskara ulertzeko gai da.
  - Entrenamenduen % 43 euskara hutsean egiten dira eta %6tan euskara erdara baino gehiago erabiltzen da.
  - Taldeen barneko ahozko harremanak , Zuzendaritza bilerak eta kirolariekin egiten diren bilerak, %25etan euskaraz egiten dira eta %11tan euskara erdara baino gehiago erabiltzen da.
  - Taldeen barneko funtzionamendurako erabiltzen diren idazkien (oharrak, bazkide txartela, estatutuak, bilera aktak eta gai zerrendak) %34tan elebidunean izaten dira. % 25 euskara hutsean idazten da eta % 4tan euskarak erdarak baino presentzia handiagoa izaten du.
- Jendaurrean egiten diren ahozko aurkezpenen %63 elebidunean egiten dira eta % 22 euskaraz. Publizitaterako kartel eta taldeen kanporako idazten diren gutunen %73 elebidunean idazten dira eta % 24 euskara hutsean.
- Taldeen izenen %57 euskaraz dago eta % 32 elebidunean.
- Euskararen presentzia handiagoa da bai idatzian bai kanpora begira egiten diren ekintzetan.
- Kirol batzuetan haurren ehuneko handi bat euskalduna da eta entrenatzaileak erdaldunak edo ia euskaldunak. Gauza bera gertatzen da zenbait herritan. Bi arrazoi nagusi antzeman ditugu:
    - Sakanan kirol horietarako entrenatzaile bakarra dago eta ez dago beste aukerarik
    - Talde gehienetan entrenatzaileak boluntarioak dira eta ez dago euskaldunak edo erdaldunak aukeratzetik.
  - Entrenatzailea erdaldun edota ia euskalduna denean euskararen presentzia nabarmen jaisten da, hurrekin eguneroko dinamikan (entrenamendu eta saioetan) ez ezik, gainerako jardunetan ere bai.

## **AURRERA BEGIRA**

- Sakanako 11-14 urte bitarteko haur kirolean, ikerketa honetan bildu diren datuen arabera, gehien-gehienak euskaldunak dira. Euskararen erabilpena ez da horren parekoa.

Haurrekin egiten diren saio, entrenamendu edota jarduera guztietan erreferentzia bat egoten da eta hau, jakina, entrenatzailea, monitorea edota begiralea izaten da. Erreferentzia bai kirola arloan (ikasteko, praktikatzeko), bai kirolaz gain dauden beste gauza batzuetarako eta horien artean erabiltzen den hizkuntzarako ere. Entrenatzaileak ez badu euskaraz egiten jarduerak ez dira euskaraz egingen edo euskara ez da hizkuntza normalizatua izanen jarduera horietan.

Ikerketa honekin ikusi ahal izan dugu haur kirolean aritzen diren asko boluntarioak direla eta ez zaiela eskatzen euskara jakitea, bestela, batzuetan ezinezkoa izanen litzatekeelako taldea aurrera eramatea.

Ikusi dugu, bestalde, nolako ahaleginak egiten diren monitore berriak lortzeko eta zer zaila gertatzen den.

Aipatzekoa da , gainera, nola zenbait kirolean Sakanan ,urteak joan urteak etorri, entrenatzaile bakarra dagoen eta ez den ordezkorik ateratzen. Dagoen entrenatzaile bakar hori erdalduna denean ez dago euskararen erabilpena eskatzerik.

Aurrera begira, guk ikusten dugun irtenbide posible bat da formazio, sentsibilizazio edo “eskuratze” kanpaina burutzea haur kirolean, kirolean aritzen diren haur eta gaztetxo euskaldunen artean. Kanpaina horren helburuak hauek izanen lirateke: alde batetik, entrenatzaileak ziurtatuz haur kirolaren jarraipena ziurtatzea, eta bestetik, jarraipen hori entrenatzaile euskaldunek egitea.

# **Gehigarriak**



Sakanako Mankomunitatea

## EUSKARAREN INGURUKO IKERKETA SAKANAKO

### HAUR KIROLEAN (13-16 urtekoak)

#### A- IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. **Arduradunaren izena:** .....
2. **Herria:** .....
3. **Telefonoa:** .....
4. **Kirol jardueraren antolatzailea** (Nork sustatu edo bultzatzen du?)
  - Izena: .....
  - Herria: .....
  - **Mota:**
    - Entitatea
    - Taldea
    - Besterik
  - Azalpena:  
.....  
.....  
.....
5. **Kirol jardueraren kudeatzailea** (Nork entrenatu edo irakasten du?)
  - Izena: .....
  - **Mota:**
    - Entitatea
    - Taldea
    - Partikularra
  - Azalpena:  
.....  
.....  
.....
6. **Antolatzaile eta kudeatzailearen arteko harremana:**
  - Udalaren menpeko kirol taldea / jarduera .....
  - Ikastetxe baten menpeko kirol taldea / jarduera .....
  - Bestelako elkarte baten menpeko kirol taldea / jarduera
  - Kirol Elkarte .....

**7. Jarduera federatua:**

- Bai .....
- Ez .....

**8. Zein dira kudeatzailearen jarduera nagusiak?**

- Kirol jarduerak antolatzea .....
- Kirol ikastaroak .....
- Kirol eskola .....
- Besterik .....

**Zehaztapenak:**

.....  
.....

**9. Zein kirolean aritzen da?**

- |  |  |                                  |
|--|--|----------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Areto futbola   | <input type="checkbox"/> Herri kirolak       | <input type="checkbox"/> Pilota  |
| <input type="checkbox"/> Txirindularitza | <input type="checkbox"/> Saskibaloia         | <input type="checkbox"/> Futbola |
| <input type="checkbox"/> Igeriketa       | <input type="checkbox"/> Xakea               | <input type="checkbox"/>         |
| Taekwondo                                |  |                                  |
| <input type="checkbox"/> Irristaketa     | <input type="checkbox"/> Atletismoa          | <input type="checkbox"/> Mendia  |
| <input type="checkbox"/> Multikirola     | <input type="checkbox"/> Borroka arteak      | <input type="checkbox"/> Karatea |
| <input type="checkbox"/> Pala            | <input type="checkbox"/> Gimnasia erritmikoa | <input type="checkbox"/> Tenisa  |
| <input type="checkbox"/> Besterik        |  |                                  |

**B- PARTAIDEAK**

**1. Zenbat talde daukazue haur (13-14 urte) eta kadete (15-16 urte) mailan?**

.....

**2. Zenbat partaide dira osotara?**

.....

...

**3. Zenbat partaide daude talde bakoitzean?**

- |                  |                  |                  |
|------------------|------------------|------------------|
| 1. taldean ..... | 2. taldean ..... | 3. taldean ..... |
| 4. taldean ..... | 5. taldean ..... | 6. taldean ..... |

**4. Nola banatzen dira partaideak euskara mailaren arabera?**

(Ahal bada zenbakitan, bestela ehunekotan)

1. taldean:  
- D ereduan ..... - A ereduan .....  
- EE /ED .....

2. taldean:  
- D ereduan ..... - A ereduan .....  
- EE /ED .....

3. taldean:  
- D ereduan ..... - A ereduan .....  
- EE /ED .....

4. taldean:  
- D ereduan ..... - A ereduan .....  
- EE /ED .....

5. taldean:  
- D ereduan ..... - A ereduan .....  
- EE /ED .....

6. taldean:  
- D ereduan ..... - A ereduan .....  
- EE /ED .....

## C- ENTRENATZAILEAK / BEGIRALEAK

### 1. Zenbat entrenatzaile / begirale daude?

.....

### 2. Nola banatzen dira euskara mailaren arabera?

- Euskaldunak ..... - la euskaldunak .....  
- Erdaldunak ..... - EE / EA .....

Euskalduna: euskaraz ongi hitz egin eta ongi idazteko gai dena  
la euskalduna: euskara ulertzeko gai izan arren, euskaraz ongi hitz egiteko zailtasunak

dituena

Erdalduna: euskaraz ez dakiena

### 3. Begirale edo entrenatzaileak aukeratzekoan euskaraz jakitea kontuan hartzen da?

- Bai, derrigorrezkoa da .....   
- Bai, merezimendutzat hartzen da .....   
- Ez da kontuan hartzen .....   
- Besterik .....

Zehaztapenik?

.....  
.....  
.....

## D- BARNE FUNTZIONAMENDUA

### 1. ENTRENAMENDUAK

**1.1 Entrenatzaile eta partaideen artean zein hizkuntza erabiltzen da?**

- Euskara .....
- Erdara .....
- Euskara erdara baino gehiago
- Erdara euskara baino gehiago

**1.2 Entrenatzaile / begiraleen artean zein hizkuntza erabiltzen da?**

- Euskara .....
- Erdara .....
- Euskara erdara baino gehiago
- Erdara euskara baino gehiago
- Bakarra da .....

**1.3 Partaideen artean zein hizkuntza erabiltzen da?**

- Euskara .....
- Erdara .....
- Euskara erdara baino gehiago
- Erdara euskara baino gehiago

### 2. BARNE HARREMANAK

**2.1. Ahoz, zein hizkuntza erabiltzen da?**

**2.1.1. Zuzendaritza bileretan?**

- Euskara .....

- Erdara .....
- Euskara erdara baino gehiago
- Erdara euskara baino gehiago
- Ez dago .....

**2.1.2. Partaideekin bileretan?**

- Euskara .....
- Erdara .....
- Euskara erdara baino gehiago
- Erdara euskara baino gehiago
- Ez dago .....

**Azalpenik?**

.....  
 .....

**2.2. Idatziz, zein hizkuntza erabiltzen da?**

**2.2.1. Taldearen izenerako?**

- Euskara .....
- Erdara .....
- Biak .....
- Ez dago .....

**2.2.2. Talde barnean egiten diren oharrak eta kartelak?**

- Euskara .....
- Erdara .....
- Euskara erdara baino gehiago
- Erdara euskara baino gehiago
- Biak berdin .....
- Ez dago .....

**2.2.3. Bazkide txartelean?**

- Euskara .....
- Erdara .....
- Biak berdin .....
- Ez dago .....

**2.2.4. Taldearen estatutuetan?**

- Euskara .....
- Erdara .....
- Biak berdin .....
- Ez dago .....

**2.2.5. Bilera aktetan?**

- Euskara .....
- Erdara .....
- Biak berdin .....
- Ez dago .....

### 2.2.6. Bileretako gai-zerrendetan?

- Euskara .....
- Erdara .....
- Biak berdin.....
- Ez dago .....

### 2.2.7. Besterik?

.....  
.....  
.....

## 3. KANPO HARREMANAK

### 3.1. Ahoz, zein hizkuntza erabiltzen da?

#### 3.1.1. Jendaurreko aurkezpen eta agurretan?

- Euskara .....
- Erdara .....
- Biak berdin.....
- Ez dago .....

#### 3.1.2. Megafoniako oharretan?

- Euskara .....
- Erdara .....
- Biak berdin.....
- Ez dago .....

#### 3.1.3. Ahozko harremanetan kirol federazioarekin?

- Euskara .....
- Erdara .....
- Euskara erdara baino gehiago
- Erdara euskara baino gehiago
- Ez dago .....

#### 3.1.4. Ahozko harremanetan Sakanako kirol zerbitzuarekin?

- Euskara .....
- Erdara .....
- Euskara erdara baino gehiago

- Erdara euskara baino gehiago

### 3.1.4. Jendaurreko sari banaketetan?

- Euskara .....
- Erdara .....
- Euskara erdara baino gehiago
- Erdara euskara baino gehiago
- Biak berdin .....
- Ez dago .....

## 3.2. Idatziz, zein hizkuntza erabiltzen da?

### 3.2.1. Gurasoei bidalitako gutun edo oharretan?

- Euskara .....
- Erdara .....
- Euskara erdara baino gehiago
- Erdara euskara baino gehiago
- Biak berdin .....
- Ez dago .....

### 3.2.2. Karteletan eta publizitatean?

- Euskara .....
- Erdara .....
- Euskara erdara baino gehiago
- Erdara euskara baino gehiago
- Biak berdin .....
- Ez dago .....



Sakanako Mankomunitatea

## ESTUDIO SOBRE EL EUSKARA EN EL DEPORTE INFANTIL

### EN SAKANA (13-16 años)

#### A- DATOS IDENTIFICATIVOS

3. **Nombre del / de la responsable:**.....
4. **Localidad:**.....  
.
5. **Teléfono:** .....
6. **Organizador de la actividad deportiva** (¿Quién la promueve?)  
 - Nombre: .....  
 - Localidad: .....  
 - **Características:**  
     Entidad       Grupo deportivo       Otros   
 Descripción:  
 .....  
 .....
7. **Responsable de la actividad deportiva** (¿Quién entrena o enseña?)  
 - Nombre: .....  
 - **Características:**  
     Entidad       Grupo deportivo       Otros   
 Descripción:  
 .....  
 .....
8. **Relación entre el organizador y el responsable de la actividad:**  
 - Grupo / actividad dependiente del ayuntamiento.....   
 - Grupo / actividad dependiente de centro escolar...   
 - Grupo / actividad dependiente de otro tipo de sociedad   
 - Sociedad deportiva.....

**9. Actividad federada:**

- No .....
- Si .....

**10. Principales objetivos de la entidad o grupo responsable**

- Organización de actividades deportivas.....
- Cursos de deporte.....
- Escuela de deporte .....
- Otros.....

Descripción.....  
.....

**11. ¿Qué deporte practica?**

- |                                       |   |                                    |
|---------------------------------------|---|------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Fútbol sala  | <input type="checkbox"/> Herri kirolak    | <input type="checkbox"/> Pelota    |
| <input type="checkbox"/> Ciclismo     | <input type="checkbox"/> Baloncesto       | <input type="checkbox"/> Fútbol    |
| <input type="checkbox"/> Natación     | <input type="checkbox"/> Ajedrez          | <input type="checkbox"/> Taekwondo |
| <input type="checkbox"/> Patinaje     | <input type="checkbox"/> Atletismo        | <input type="checkbox"/> Monte     |
| <input type="checkbox"/> Multideporte | <input type="checkbox"/> Artes marciales  | <input type="checkbox"/> Karate    |
| <input type="checkbox"/> Pala         | <input type="checkbox"/> Gimnasia Rítmica | <input type="checkbox"/> Tenis     |
| <input type="checkbox"/> Otros        |   |                                    |

**E- PARTICIPANTES**

**1. ¿Cuántos grupos hay en infantiles (13-14 años) y cadetes (15-16 años)?**

.....

**2. ¿Cuántos participantes hay en total?**

.....

**3. ¿Cuántos participantes hay en cada grupo?**

- |               |               |                |
|---------------|---------------|----------------|
| 1. grupo..... | 2 .grupo..... | 3.grupo.....   |
| 4. grupo..... | 5. grupo..... | 6. grupo ..... |

**4. ¿Como se distribuyen los/las participantes segun su nivel de euskera? (Si es posible en numeros absolutos, si no, en porcentajes)**

- |                |                |
|----------------|----------------|
| 1. grupo:      |                |
| -Modelo D..... | -Modelo B..... |
| -Modelo A..... | - NS/NC .....  |

2. grupo:  
-Modelo D..... -Modelo B.....  
-Modelo A..... - NS/NC .....

3. grupo:  
-Modelo D..... -Modelo B.....  
-Modelo A..... - NS/NC .....

4. grupo:  
-Modelo D..... -Modelo B.....  
-Modelo A..... - NS/NC .....

5. grupo:  
-Modelo D..... -Modelo B.....  
-Modelo A..... - NS/NC .....

6. grupo:  
-Modelo D..... -Modelo B.....  
-Modelo A..... - NS/NC .....

## 2. ENTRENADORES/AS- MONITORES/AS

a. ¿Cuántas personas hay?

b. ¿Como se distribuyen segun su conocimiento de euskara?

- Euskaldunak ..... - la euskaldunak .....  
- Erdaldunak ..... - EE / EA .....

Euskalduna: habla y escribe bien en euskara  
la euskalduna: aunque entiende el euskara tiene dificultades a la hora de hablarlo  
Erdalduna: no habla ni entiende el euskara

c. En el momento de elegir a estas personas se tiene en cuenta su conocimiento de euskara?

- Si, es imprescindible.....   
-Si, se toma como merito   
- No se tiene en cuenta.....  
- Otros.....

Aclaraciones:

.....  
.....

## 3. FUNCIONAMIENTO INTERNO

### 1. ENTRENAMIENTOS

**1.1 Entre la persona que entrena y los/las participantes ¿cuál es el idioma que se utiliza?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III.Más euskara que castellano
- IV.Más castellano que euskara

**1.2 Entra las personas encargadas de los entrenamientos ¿qué idioma se utiliza?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III.Más euskara que castellano
- IV.Más castellano que euskara
- V. No hay más que una

**1.3 Entre los/las participantes ¿qué idioma se utiliza?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III.Más euskara que castellano
- IV.Más castellano que euskara

**2. RELACIONES INTERNAS**

**2.1. Comunicación oral, qué idioma se utiliza?**

**2.1.1. ¿En reuniones de la Junta Directiva?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III.Más euskara que castellano
- IV.Más castellano que euskara
- V. No hay

**2.1.2. ¿En reuniones con los/las participantes?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III.Más euskara que castellano
- IV.Más castellano que euskara
- V. No hay

**Aclaraciones**

.....  
.....

**2.2. Comunicación escrita, ¿qué idioma se utiliza?**

**2.2.1. ¿Para el nombre del equipo?**

- a. Euskara .....
- b. Castellano.....
- III. Los dos.....
- IV. No hay .....

**2.2.2.¿En las notas y carteles que se hacen para el equipo?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III Los dos
- V. No hay .....

**3.2.3. ¿En el carnet de socio/a?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III Los dos .....
- V. No hay.....

**3.2.4. ¿En los estatutos del equipo?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III Los dos .....
- V. No hay.....

**3.2.5. ¿En las actas de las reuniones?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III Los dos .....
- V. No hay.....

**3.2.6. ¿En el orden del día de las reuniones?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III Los dos .....
- V. No hay.....

**3.2.7. Aclaraciones**

.....  
 .....

**3. RELACIONES EXTERNAS**

**3.1. Comunicación oral,¿que idioma se utiliza?**

**3.1.1.¿En los saludos y presentaciones en público?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III Los dos .....

V. No hay.....

**3.1.2.¿En los mensajes por megafonia?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III Los dos .....
- V. No hay.....

**3.1.3.¿En las relaciones con la federación?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III.Más euskara que castellano
- IV.Más castellano que euskara
- V. No hay

**3.1.4.¿En las relaciones con el Servicio de deportes (Mank.)?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III.Más euskara que castellano
- IV.Más castellano que euskara

**3.1.4.¿En el reparto de premios en público?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III.Más euskara que castellano
- IV.Más castellano que euskara
- V.Biak berdin .....
- VI. Ez dago .....

**3.2.Comunicación escrita,¿qué idioma se utiliza?**

**3.2.1.¿En las cartas o notas enviadas a las familias?**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III.Más euskara que castellano
- IV.Más castellano que euskara
- V.Biak berdin .....
- VI. Ez dago .....

**3.2.2.¿En la publicidad y los carteles??**

- I. Euskara .....
- II Castellano.....
- III.Más euskara que castellano
- IV.Más castellano que euskara
- V.Biak berdin .....
- VI. Ez dago .....